

AITAK SEMEARI

Lagundurikan denoi
Gugatik ill zanak,
Seme, azi zaitugu
Aitak eta amak,
Beti zure gidari
Izandu geranak.

Orañ gurutze onen
Oñean esanak,
Ondo goguan artu
Biaituzu danak.

Zu Ameriketara
Joatia emendik,
Jaunak ala nai badu
¡Zer egingo det nik!
An ez dezu izango
Aitik eta amik;
Baña etzera galduko
Noranaira joanik,
Ez bazaizu aztutzen
Gaur emen esanik.

Gorde zazu buruan
Eta biyotzean,
Aitak zer esan zizun
Onuntz laguntzean,
Bitarteko arturik
Jesus gurutzean:
Jaungoikua t'ait'amak
Batek aztutzean
Ez leike ondo izan
Denbora luzean.

Ez nizuke utziko
Joaten, egiyetan,
Gure erlijyua
Ez balitz an bertan.

Irichikobaziña
Añ urrutiyetan,
Erri ta eleizarik
Ez dan tokiyetan,
Oroi zaitetz Jainkoaz
Leku guztiyetan.

Seme, izan goguan
Zere gurasuak
Eta uzten dituzun
Senide gozuak;
Jayo ziñan tokiko
Mendi ta basuak,
Euskerazko otoitzak
Edo errezuak,
Erakutsiyak zure
Amacho gañuak.

Irichi da ordua
Juan bear dezuna,
Badakizu ait'amak
Emen dauzkatzuna;
Ez dezazula aztu
Gaur neri entzuna.
Itz baterako au da
Eskatzen zaizuna:
Izan zaitetz non nai ta
Beti euskalduna.

PEDRO MARÍA OTAÑO.